

Subordinazioaren alde

Orain egun gutxi batzuk, Alde Zaharreko taberna ketu batean arin afaldu bitartean, gutariko batek, mahaikideon jarrera aldekoa sumatu zuenean, ogitar-tekoekin batera edandako ardo beltz eta sagardoaz bezainbeste hitzez horditzen hasiak ginenean (arte zaila baita, guztion esku ez dagoena, mintzagai berri bat, egoki, bere tenorean ateratzen jakitea), hizpidera ekarri zuen idazle ustez gazte batek erdarazko egunkari batean, euskaraz, idatzitako iritzi-artikulu, zeinean, bere burua (eta bere kasua) Kundera(rena)rekin edo Murakami(rena)rekin konparatuta, kexatzen omen baitzen beste euskal idazleek ematen dioten harrera hotzaz edo horrelako zerbaitez, ez nago-eta edukiaz seguru, zeren eta, gutariko batek, gaian interesa erakutsi genuenez gero, besteo i artikulu a ozenki irakurtzen zigun bitartean, nik –dela normalean saihesten dudana maionesak gaitz egin zidalako, dela egunotan Marcel Prousten *Denbora galduaren bila* irakurtzen hasi naizelako eta beraren esaldi luzeetako prosodia kulunkari eta mikroskopikoak, laster Joxe Austin Arrietaren itzulpenari esker gure hizkuntzan ere gozatu ahal

izango dugunak, lilurata naukalako— esandakoei kasu eman ordez, estiloari erreparatu bainion, esaldi sinple edo bakunez osaturiko jardun sinkopatu horri; eta beste ezertan hausnartzeko ezgai, inguruneaz guztiz ahazturik (usoaren modura, zeinak ez baitu, beste hegazti bezala, edatean burua gora altxatzen, bai zik eta edan gogo duena, ahuspez, hatsik hartu gabe, kolpe



JOSU SANTESTEBA

batez edaten duen, bere bakarkako asebetetze horrek dakarkion plazeraz besterik ez duelarik konturik egiten), etxeko saloian pentsamenduaren sokari segika artikulu bat prestatzen banengo bezain kontzentratu, nire adimenak atzera egin zuen eta harriturik argi ikusi ahal izan nuen gaurko euskal literaturak pairatzen duen gaitzetako bat, ez bakarria baina bai dirudien baino garrantzia handiagokoa, horixe dela, euskal idazle ustez zein urtez gazteok hartu dugun esaldi

sinplearen aldeko hautu itsua, zeinaren arrazoiak bilatu nahi izatekotan –euskararen ezgaitasuna, altura honetara, behin bazter utziz gero–, euskal literatura jakin batek, nagusitu den ereduak, hain zuzen, haur eta gazte literaturarantz egin duen eta beste kontuetan ere sumatzen diodan tendentzian bilatu beharko baikenuke edo, bestela, gure irakurleriaren profil soziolinguistikoa aintzat hartuta, ikastetxe eta euskaltegietatik ateratzen diren euskaldun berrien hordek eskatzen diguten euskara erraza delakoaren eraginean (nahiz eta, azken honi dagokionez, ni ere euskaltegi batetik pasatakoa naizen aldetik esan dezakedan ez dudala euskara erraz horren aldarrikapenean gehiegi sinesten, maila sintaktiko-

an bederen, euskaldun berrientzat ez dagoelako zailtasun poxi bat zerratzen duen esaldi luze bat deskodetzeak baino poz eta ondorioz motibazio gehiago ematen duen esperientziarik), edo, azkenik, arrazoibide arrunt, ikuspegi estuegiko hauek alde batera, pentsatu beharko genuke ezen aldaketa estrukturalagoa gertatu eta irakurtzeko modu bera bestelakotu dela, *in this age of self*, halako gisan non irakurlearen askatasunaren eremua, edo berarekiko beldurra, hainbeste zabaldu den ezen menderakuntza oro, esaldien edo kontzeptuen arteko erlazioa norberak ezartzeko aukera gutxitzen duen heinean, zapalketatzat jotzen baita, zientziaren arbolan kiribilka Adan tentatu zuen deabruzko suge luze erretoriko hura balitz bezalako kondenzazioaz. ■

Nire adimenak atzera egin zuen eta harriturik argi ikusi ahal izan nuen gaurko euskal literaturak pairatzen duen gaitzetako bat, ez bakarria baina bai dirudien baino garrantzia handiagokoa, horixe dela, euskal idazle ustez zein urtez gazteok hartu dugun esaldi sinplearen aldeko hautu itsua

irudia:
Antton Olariaga

